

BEZEROEN SEGMENTUA

Gorotzen bitartez sortutako energia; bertako produktua den bezala hasiera batean inguru txiki batean hasiko ginateke energia zerbitzua ematen. Hasierako ideia eskualde batean suministroa ematen hastea izango litzateke. Adibidez, Urola Garaia, Goierri edota Buruntzaldea eskualdeetako batean hasiko ginateke. Bertako erakunde publikoei beraien instalakuntzak energia honetaz baliatzeko. (Udaletxea, kirol instalakuntzak, kulturguneak...) Ondoren eremu pribatura pasako ginateke; eraikin desberdinetan gure energia hornitzen. (Etxe independenteetatik, eraikin eta auzogune desberdinetara).

Gure bezeroak; energia baliagarri bat bilatuko dute, merkea eta bertakoa. Udaletxeek energia sortzeko alternatibak bilatzen aritu daitezke eta aukera honek energia berriztzaile bat erabiltzera bultzatuko ditu. Horrez gain, sektore publikoak bere irudia garbituko luke aldaketa klimatikoa dela eta, gure energia berriztagarria erabiltzeagatik.

Bigarren faseko bezeroak herritar independenteak izango lirateke; beraien ekonomiaren onerako energia merkeago eta jasangarri baten bila dabiltzan horiek.

